

**AGIRI IDATZIAK
NORMALIZATZEKO
TXOSTENA
2.0**

[2014]

Aurkibidea

1.- Komunikazioa

1.1.- Sarrera	1
1.2.- Hizkuntza ofizialen erabilera herritarrarekiko	1
1.3.- Helburua komunikatzea da	

2.- Tipografia eta testuen diseinua

2.1.- Idazkien osagaiak	7
2.1.1.- Orriburua	7
2.1.2.- Orri oina	8
2.1.3.- Izenburua	9
2.1.4.- Oharra	10
2.1.5.- Amaierakoak	10
2.1.6.- Lerrokatzea	12

3.- Testu elebidunak zelan diseinatu

3.1.- Testu elebidunetan euskara nabarmentzeko	13
3.1.1.- Kokapena	16
3.1.2.- Tipografia	18
Letra neurria eta mota	
Letra kolorea	
Justifikatua	
Lerro kopurua	
Lerro artea	
Letra tamaina eta iturria	

3.1.2.- Osagai komunak	23
------------------------	----

3.2.- Bizkaieraren erabilera	24
------------------------------	----

4.- Idazkiak

4.1.- Oharrak	25
4.2.- Inprimakiak eta eskaera-orriak	27
4.3.- Gutunak-eta	31
4.4.- Webgunea eta posta elektronikoa	36
4.5.- Bilera-deia	39
4.6.- Bilera-akta	44
4.7.- Fax	53
4.8.- Bandoak-eta (dekretuak, ebazpenak, irizpenak, jakinarazpenak)	55

5.- Eranskina. Gramatika (euskara)

5.1.- Puntuazio-zeinuei dagozkien tartekak	65
5.2.- Loturik, bereiz edo marratxoz	65
5.3.- Zenbakien idazkera	66
5.4.- Data	67
5.5.- Ehunekoak	67
5.6.- Siglak	67
5.7.- Laburdurak	68
5.8.- Ikurrak	68
5.9.- H hizkia	69
5.10.- Urte sasoiak, hilabeteak eta astegunak	70
5.11.- A organikoa	70
5.12.- Ortografia maileguen kasuan	71

6.- Adibideak

6.1.- Testuaren egitura jagon	4
6.2.- Idazki laburrak	4
6.3.- Hartzailearen helbidea	8
6.4.- Amaierakoak	10
6.5.- Idazki laburrak (zutabe bi, jarraian)	14
6.6.- Eskaera-orria	16
6.7.- Bertaratze-ziurtagiria	22
6.8.- Bizkaieraren erabilera	23
6.9.- Oharrak	26
6.10.- Inprimakiak	27
6.11.- Izena emateko orria	30
6.12.- Gutunak	32
6.13.- Ofizioa	34
6.14.- Posta elektronikoa	37
6.15.- Bilera-deia	40
6.16.- Aktak	45
6.17.- Faxe	54
6.18.- Bandoa	56
6.19.- Dekretua eta jakinarazpena	57
6.20.- Ebazpena eta jakinarazpena	60
6.21.- Irizpena	64

7.- Síntesis. Informe para la normalización de textos administrativos

7.1.- La comunicación

7.1.1.- Introducción	72
7.1.2.- Uso de los idiomas oficiales	72
7.1.3.- La comunicación como objetivo	73

7.2.- Tipografía

7.2.1.- Encabezado	74
7.2.2.- Destinatario	74
7.2.3.- Títulos y subtítulos	74
7.2.4.- Nota	75
7.2.5.- Firma y fecha	75

7.3.- Presentación de documentos bilingües

7.3.1.- Ubicación	75
7.3.2.- Tipografía	76
7.3.3.- Elementos comunes	77

8.- Ejemplos

8.1.- El cuidado de la estructura de texto	4
8.2.- Escritos breves	4
8.3.- Dirección del destinatario	8
8.4.- Firma y fecha	10
8.5.- Escritos breves (isn y con columnas)	14
8.6.- Hoja de solicitud	16
8.7.- Certificado de asistencia	22
8.8.- Bizkaieraren erabilera	23
8.9.- Notas	26
8.10.- Impresos	27
8.11.- Hoja de inscripción	30
8.12.- Carta	32
8.13.- Oficio	34
8.14.- Correo electrónico	37
8.15.- Convocatoria de reunión	40
8.16.- Actas	45
8.17.- Fax	54
8.18.- Bando	56
8.19.- Decretos y notificaciones	57
8.20.- Resoluciones y notificaciones	60
8.21.- Dictámenes	64

1.- KOMUNIKAZIOA

1.1.- SARRERA

Eguneroko jardunean hainbat dira udaleko beharginek sortu behar dituzten agiriak, asko eta asko antzekoak dira edukiz, baina erabat ezberdinak egituraz. Gauzak horrela agirietako estiloa eta hizkera normalizatuko bada, lagungarria da estilo-liburu bat edukitzea; besteak beste, eguneroko beharrearantz sortzen diren galdera eta zalantzei erantzuteko eta, zelan ez, udaletik administratuari heltzen zaizkion agiriak batasun bat eduki dezaten bai egitura bai hizkera aldetik.

Txosten honen helburu nagusia da udalean erabiltzen diren agiri eta testuen estiloa bateratzea.

Txosten honetan uztartu eta jaso ditugu antzeko agirietan topatu ditugun aldeak eta beharginen zalantza eta hutsuneak. Edozelan ere, txosten hau abiapuntu bat baino ez da, beharginek egindako zalantzekin eta ekarpenekin osatuz joan beharko dena.

IVAPeko estilo-liburua, 44 or.

Orrialdeak begientzako irudiak dira, eta irudiak komunikazio-indar handia du: ondo dakite hori kazetaritzan eta publizitatean aritzen direnek; horregatik da hain inportantea idazkien itxura jagotea, azken batean hori baita irakurlearen eta paperaren arteko lehen kontaktua, erakarri edo atzera botako gaituena.

1.2.- HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA HERRITARRAREKIKO

2005 Euskara erabilera sustatu eta normalizatzeko Udal Araudia

Zerbitzu hizkuntza

Euskarak, gaztelaniak bezala, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du, atal mota guztietan. Administrazioak herritarrekin dituen harreman mota guztietan bermatu beharko du euskararen erabilera, ahozko eta aurrez aurreko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgorailua erabiltzen denetan, idatzizkoetan eta bai tresna elektronikoen, informatikoen zein telematikoen bidez gertatzen direnetan ere (internet, fax, posta elektronikoa eta abarretan).

Ahozko harremanak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzugailu automatikoen, bozgorailuz e.a., emandakoak), euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, esandako ordena horretan.

Euskara dakien langilea euskaraz zuzenduko zaio herritarri, eta gero administratuak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.

Idatzizko harremanak

Herritarrei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, herritarrak beren-beregi euskararen edo gaztelaniaren aldeko aukera egiten ez badu. Izan ere, herritarrak Administrazio honetara zuzentzerakoan erabiliko hizkuntza da erantzunean erabiliko dena.

Honako hauetan idatziko dugu euskara hutsean:

- Herritarrak edo idazkia jaso behar duen erakundeak Udalarekiko harremanetan euskaraz jardutea hautatu duenean.
- Euskara hutsean jasotako idazki bati erantzun behar diogunean.
- Hasieratik ziur-ziur dakigunean idazkia jaso behar duenak ulertu behar duela (euskaltegia, hizkuntza eskakizun jakin bat egiaztatuta duen beharginari...)

Honako hauetan idatziko dugu ele bitan:

- Ele bitan jasotako idazki bati erantzun behar diogunean.
- Ziur-ziur dakigunean idazkia jaso behar duenak ez dakiela euskaraz.
- EAeko administrazio publikoei idazten diegunean.
- Barruko idazki ofizialak (dekretuak, irizpenak...).

1.3.- HELBURUA KOMUNIKATZEA DA


Lehenengo eta bat argi eta garbi eduki behar dugu zer lortu gura dugun gure idazkiarekin. Hau da, helburu bat edo bestea izan asko aldatuko da bai gure estrategia, bai aukeratutako idazki-mota ere:

Helburua	Agiri-mota
Eskatzea	<ul style="list-style-type: none">• Eskabidea
Informazioa ematea	<ul style="list-style-type: none">• Ofizioa• Gutuna• Jakinarazpena• Iragarkia• Foiletoa• Zirkularra• Prentsa oharra
Eginaraztea	<ul style="list-style-type: none">• Dekretua• Ebazpena• Agindua
Iritzi ematea	<ul style="list-style-type: none">• Txostena• Artikulua
Dei egitea	<ul style="list-style-type: none">• Bilera-deia• Gonbita
Egiaztatzea	<ul style="list-style-type: none">• Ziurtagiria• Adieraztea• Akta

Hau da, komunikazioaren helbururik behinena funtzionala da. Kontuz erabili, hartara, asmo estetikoak eta literarioak. Gauzak horrela ondorengoak eduki behar ditugu gogoan:

- **Berba ulergarriak erabili.** Gure komunikazio esparruan berba teknikoak erabili behar izaten ditugu, baina askotan berba horiek ezezagunak dira herritarrarekiko. Horrelako kasuetan berbarik ezezagunena erabiliko dugu (izapidetu > tramitatu), edo azalpena bera egokitu egingo dugu.
- **Testuaren egitura jagon.** Ahalegin handia egingo dugu idazkiko berbak eta egiturak aukeratzeko, baina ahalegin guztia pikutara joan daiteke grafikoki asmatzen ez badugu:

Galdakaon, 2011ko apirilaren 1ean.

 **Testuaren egitura jagon.**

Rigoletto (G. Verdi) operako saio aurreorokorrera eta muntaketara aurrebisita egiteko baimena

Datorren asteartean Bilboko Euskalduna Jauregira joango gara Rigoletto operako muntaketa ikustera. Antzerkiaren barruak ezagutuko ditugu eta aldi berean saio aurreorokorrera joango gara. Joan-etorria zuen kontura egin beharko duzue. Bisita ordua 19:10ean daukagunez Euskalduna Jauregiko artisten atean geratuko gara arratsaldeko 19:00etan.


*Saio bat denez gero irteera ordua ez da zehatza, obraren zuzendariaren araberakoa izango da. 20:30 eta 20:45 artean izan daiteke.

Ikaslearen izen-abizenak:

Ama/aita edo tutorearen izenpea

***OHARRAK:**

- Bisitaren ezaugarriak direla eta taldea mugatua da. Hori dela eta, baimenak jasoko ditugun ordenaren arabera osatuko da taldea, harik eta taldea osatu arte.
- Orri hau derrigorrean bete behar duzue.

 **Testuaren egitura jagon.**

BAIMEN-EMATEA

Operako saio aurreorokorrera eta muntaketara aurrebisita egiteko

Datorren asteartean, otsailak 15, Bilboko Euskalduna Jauregira joango gara *Rigoletto* (G. Verdi) operako muntaketa ikustera. Antzerkiaren barruak ezagutuko ditugu eta aldi berean saio aurreorokorrera joango gara. Joan-etorria zuen kontura egin beharko duzue.

Ordua: 19:00

Lekua: Euskalduna Jauregiko artisten atea (Euskalduna zubitik hurbil)

Bisita ordua: 19:10

Aurreorokorra hasteko ordua: 20:00

Irteera: 20:30-20:45

Oharra:

- Bisitaren ezaugarriak direla eta taldea mugatua da. Hori dela eta, baimenak jasoko ditugun ordenaren arabera osatuko da taldea, harik eta taldea osatu arte.
- Orri hau derrigorrean bete behar duzue.

Ikaslearen izen-abizenak

Ama/aita edo tutorearen izenpea

Galdakao, 2011ko apirilaren 1a

- **Itzuli baino, egokitu. Korredakzioa.** Gehienetan testuak itzuli behar izaten dira eta normalean espainierazko testuaren morrontzan sortzen da euskarazkoa, nahiz eta euskarak berezko barne arauak izan: joskera, esaldiaren egitura, hiztegia eta abar. Halanda ze, Euskarazko testua BERRIDATZI egingo da, gure helburua komunikatzea delako eta mezuaren hartzailea euskalduna dalako.

Horregatik guztiagatik itzulpena ez da zuzen zuzenekoa izango eta espainierazko testu bat euskaratu behar denean espainierazko testuaren mamiari erreparatuko diogu, baina testu hori berori euskarara ekarriko dugu dagokion azalarekin.

Honi prozesuoni KORREDAKZIOA deritzo, besteak beste, Kanadako administrazioan erabili ohi dena. Teknika honen bitartez, testua ez da idazten hizkuntza batean, eta bestean itzultzen, ezpada bi hizkuntzako testuak berriren berri idazten dira eta hizkuntza bietako ezaugarriak ondo eta egoki beteko dira, nahiz eta horretarako sarritan bi erredaktore behar izango diren.

Kontuan eduki behar dugu erredaktorearen helburua ahalik eta irakurle gehien izatea eta behar bezala komunikatzea dela, eta horretarako testu komunikatiboa, atsegina eta erakargarria izan behar da, hizkuntza eta hiztun bakoitzaren ezaugarri eta baldintzak errespetatuz.

Endemas akorduan eduki behar da

2005 Euskara erabilera sustatu eta normalizatzeko Udal Araudia

Idatzizko harremanak

Herritarrei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, herritarrak beren-beregi euskararen edo gaztelaniaren aldeko aukera egiten ez badu. Izan ere, herritarrak Administrazio honetara zuzentzerakoan erabilitako hizkuntza da erantzunean erabiliko dena.

Hau da, administratuari erantzungo zaio administrazioa zuzendu den hizkuntzan. Hartara, bada, espainieraz zuzentzen bada administrazioak espainieraz erantzungo dio eta alderantziz.

Komeni da, hartara, eskaera-orrietan eta antzekoetan hizkuntza deritzon kanpo bat txertatzea gerora erantzuna zein hizkuntzatan egingo den jakiteko.

EUSKARAREN KOMUNIKAZIORAKO PROTOKOLOA. (Lehentasunak).

Udalaren ekimenez edo norbaiti erantzun beharra egonez gero:

LEHENTASUNA

Informazio hartzailea herritar multzoa denean
EAEko nahiz NFEko erakundeak direnean.

Euskaraz

- Euskara hutsean jasotako idazki bati erantzun behar diogunean.
- Herritarrak edo idazkia jaso behar duen erakundeak Udalarekiko harremanetan euskaraz jardutea hautatu duenean.
- Hasieratik ziur-ziur dakigunean idazkia jaso behar duenak ulertu behar duela (euskaltegia, hizkuntza eskakizun jakin bat egiaztatuta duen beharginari...)

Ele bitan

- Idazki ofizialak.
- EAEko administrazio publikoei idazten diegunean.
- Ziur-ziur dakigunean idazkia jaso behar duenak ez dakiela euskaraz.
- Gaztelaniaz edo ele bitan jasotako idazki bati erantzun behar diogunean.

2.- TIPOGRAFIA ETA TESTUEN DISEINUA

2.1.- IDAZKIEN OSAGAIAK

Aurretiaz esan bezala testuaren egitura jagon behar da. Hona hemen, komunikazio estandarren ohiko osagaiak:

- **Orria:** Oro har, A4 neurriko orria (21 x 29,7 cm).
- **Orriburua:** Galdakao logoa eta arloaren izena.
- **Orri oina:** Helbidea, posta-kodea, telefono zenbakia, fax zenbakia eta interneteko helbidea.
- **Hartzailea:** Idazkia norentzat den.
- **Izenburua:** Idazkiek izenburua eramango dute, zeri buruzkoa den jakiteko.
- **Informazio garrantzitsuena testua denean:** idazkiaren mamiak hasieran egon behar du. Esate baterako, baimena onartu den ala ez, zerbait aurkeztu behar den...
- **Informazio garrantzitsuena inprimakia denean:** argia, zehatza eta laburra (lekuak, datak, izen-deiturak, etab.)
- **Informazio osagarriak:** bigarren mailako informazioa, ondoren kokatuko dugu: ekarri behar dituen agiriak, zehaztapenak, etab.
- **Oharrak:** garrantzi handikoak ez diren edukiak beheko aldean jartzea gomendatzen da: legeen aipamenak, oharpenak, etab.
- **Amaierakoak:** agurra, sinadura, izen-abizenak, kargua eta eguna.

2.1.1.- Orriburua

Logo bakarra

Udaleko idazki guztiek Galdakao logoa eraman behar dute orriburuaren ezker aldean. Ikus orriburua.

Erabili beharreko logoa hau da:



Orriburuaren eskuinaldean arloaren izena agertuko da euskaraz (Times New Roman 9, larriz).

ALKATETZA
ANTOLAKETA, GIZA BALIABIDEAK eta INFORMATIKA
ARLO EKONOMIKOA
GIZARTE ONGIZATEA, TOKI-GARAPENA eta ENPLEGUA
HERRITARREKIKO ARRETA
EUSKARA eta HEZKUNTZA
HIRIGINTZA
IDAZKARITZA
KULTURA, GAZTERIA, EMAKUMEA eta KIROLA
MUSIKA ESKOLA
UDAL EUSKALTEGIA
UDALTZAINGOA

2.1.3.- Hartzailea

Hartzailearen datuak, gutunetan batez be, idazkiaren gorputzaren goiko eskumaldean joango dira eta honela jasoko ditugu:

- **Izen-abizenak:** abizen bakarra jarrita nahikoa da; ez da beharrezkoa jaun eta andrea berbak eranstea.
- **Kargua:** bera bakarrik badarabilgu letra larriz idatziko dugu. Nongoa den zehazten badugu, ostera, xehez. Hau da: Alkatea, baina Ugestiako alkatea.
- **Erakundea:** erakundearen aurretik sailaren, atalaren, arloaren edo zerbitzuaren berri ere eman daiteke.
- **Helbidea:** kalea, zenbakia, pisua, posta-kodea eta herria.

 **Hartzailearen helbidea.**

[izen-abizenak] M^a Lourdes Atximinieta
[kargua] Ingurumen teknikaria
[zerbitzua, atala...] Antolaketa, Giza Baliabideak eta Informatika arloa
[erakundea] Ugestiako Udala
[kalea, zenbakia eta pisua] Marilandako bidea 1
[posta-kodea eta herria] 0000 Ugestia

Jaun/Andre hori:

Honen bitartez jakinarazi nahi dizugu datorren asteko martitzenean.....

2.1.4.- Izenburua

Idazkietan izenburua ipintzea sano mesedegarria da. Hartara, irakurleak izenburua irakurtzearekin batera, idazkia zeri buruzkoa da jakin daki.

BANDOA

DEKRETUA

JAKINARAZPENA • NOTIFICACIÓN

IRIZPENA • DICTAMEN

EBAZPENA • RESOLUCIÓN

(EZ)OHIKO BILKURARAKO DEIALDIA CONVOCATORIA DE SESION (EXTRA)ORDINARIA

Komeni da, edozelan ere, zein arlotako edo zerbitzuko den zehaztea, nahiz eta dokumentuaren orriburuan Arloa edo zerbitzua zehaztu izan.

DEKRETUAREN JAKINARAZPENA

NOTIFICACIÓN DEL DECRETO

IRIZPENA Kultura, Gazteria eta Kirol I. Batzordea

DICTAMEN Comisión I. de Cultura, Juventud y Deporte

EBAZPENA Hezkuntza eta Euskara arloko eskuordeko zinegotzia

RESOLUCIÓN Concejalía delegada de educación y euskara

2.1.5.- Oharra

Ebazpenen jakinarazpenena, berbarako:

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakezu Bizkaiko Auzitarako Epai egokian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auzitarako legemendea arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. Artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik, berraztertze errekurtsua aurkez diezaiokazu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 116. eta 117. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsuak aurkezteari kalterik egin gabe

Lo que se le/s notifica a Vd/s a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo de DOS MESES, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Bizkaia que corresponda, a tenor de lo establecido en los Arts. 8 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el Art. 109.c) de la Ley 4/1999 de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica podrá/n Vd/s. interponer RECURSO DE REPOSICION, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de UN MES que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.


Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 116, 117 y concordantes de la Ley 4/1999 de 13 de enero, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estime/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos


2.1.6.- Amaierakoak

Idazki amaierakoak zutabe bitara egin edo bakarrera egin beti lerrokatuko dira ezkerraldera. Hau da euskarazko testuaren azpiko alderdira.


- **Izenpea.** Hiru elementu hauek jaso behar dira: sinadura, izen-abizenak eta kargua.

Laugarren bat be jaso daiteke: erakundea



 **Amaierakoak**





M^a Lourdes Atximinieta
Ingurumen teknikaria
Ugestiako Udala



Izan daiteke pertsonaren izena ez ezagutzea edo pertsonak berak izena ager ez dadin gura izatea. Horrelakoetan pertsona horren kargua letra lodiz idatziko da.






Ingurumen teknikaria
Ugestiako Udala



Alkatea
Ugestiako Udala

Sarritan idazki batek izenpe bat baino gehiago dauka. Horrelakoetan ezkerretik eskumara izenpetuko da, agiria ontzat ematen duenak eskuinaldean izenpetuko du eta bere eskuinaldean udalaren zigilua.



Libe Bolunburu
Euskara teknikaria
Ugestiako Udala

M^a Lourdes Atximieta
Alkatea
Ugestiako Udala

- **Toki-eguna.** Idazkiaren amaieran jasoko da. Bi modu daude; lehena gomendatzen da, errazagoa dalako:

Galdakao, 2011ko apirilaren 20a
Galdakaon, 2011ko apirilaren 20an

- Izen ofiziala eta gero koma.
- Urtea tarteko puntu barik eta ondo deklinatua (*2.011, *2011eko)
- Hilabetea letra xehez (minuskulaz)
- Eguna behar bezala deklinatuta (8an, 4an, 5ean, 11n)

Inprimakietan-eta. Hau da administratuak edo idazkia izenpetzen duenak data bete behar babu egitura hau bultzatuko da:

.....
Tokia • Lugar

.....
Urtea • Año

.....
Hilabetea • Mes

.....
Eguna • Día

Beti ere gutun edo idazkiaren amaieran joango da eta ezkerre aldera lerrokatuk da.

2.1.7- Lerrokatzea

Lau lerrokatze modu daude: ezkerre aldera, eskuinaldera, erdira eta ezker-eskuinaldera (osoa).

Oro har Udalak hiru hauek erabiliko ditu:

Ezker-eskuinaldera (osoa): testu guztietan

Eskuinaldera: adibidez, helbideak ofizioetan eta gutunetan.

Erdira: gura izanez gero, izenburuetan

3.- TESTU ELEBIDUNAK ZELAN DISEINATU

Euskararen Legea aztertzen badugu, artikulua hauekin egingo dugu topo:

“1. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean egon daitezen Herri-Agintaritzagatikako edozein agente araupide edo erabaki ofizialek bi hizkuntzetan egon beharko dute zabalkunde ofiziala egiteko”.

“2. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean herri-agintariak eskuhartu dezateneko egintza guztiak, eta bai arduralaritzaren eta adierazpenen ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute; doakienek berariek Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezaten salbu”.

Gauzak horrela idatzkiak ofizialak diren bi hizkuntzetan idatzi behar dira.

3.1.- TESTU ELEBIDUNETAN EUSKARA NABARMENTZEKO

Edozelan ere kontuan eduki behar dugu idazki-motak eta testuaren luzerak baldintzatu egiten duela testu elebidunen diseinua. Kasu nagusi bi aurreikus daitezke:

- **Idazki laburra**, bat-bi-hiru orrikoa. Kasu horietan **bi zutabeko** sistema erabiliko da, edo testua laburra bada, paragrafo bat bi altuena, elkarren jarraian ipin daitezke.
- **Idazki luzea**, lau orritik gorakoa. Kasu horietan euskarazko eta erdarazko testuak parean joango dira baina **orri banatan**. Hau da, orrialde bikoitietan euskarazko testua jasoko da eta bakoitietan espainierazkoa.

EUSKARA

Euskara euskara euskara euskara euskara euskara
Euskara euskara euskara euskara euskara euskara
Euskara euskara euskara euskara euskara euskara
Euskara euskara euskara euskara euskara euskara
Euskara euskara euskara euskara euskara euskara

—10—

ESPAINIERA

Espainiera espainiera espainiera espainiera
Espainiera espainiera espainiera espainiera
Espainiera espainiera espainiera espainiera
Espainiera espainiera espainiera espainiera
Espainiera espainiera espainiera espainiera

—11—

- **Banaketa:** / > • euskarazko eta espainierazko testuak banatzeko zeharkako marra erabili izan da [/], baina erabilera hori inprimaketan eta asko erabili den arren, gutxi laguntzen du agiriaren egiturari, irakurketari eta itxuran. Halanda ze, zeharkakoaren ordez • erabiliko dugu.
- **Osagai komunak.** Bi zutabeetan idatzitako testuetan sarri-sarri ageri dira bi hizkuntzetan errepikatu beharko genituzkeen osagai batzuk, besteak beste, hartzailearen datuak, igorlearenak, data... Bada euskara nabarmentzeko modu bat datu horiek euskaraz ematea da.

 Idazki laburrak (zutabe bi)

ONERETXIA

Galdakaoko Udaleko Hezkuntza eta Euskara arloak bultzatuta Nerbioi-Ibaizabal bailarako abesti herrikoiak diska baten grabauko dira. Abestiak ZUZTARRETATIK AHORA egitasmoan batutakoak izango dira.

Entsegura Xxxx Xxxx kantu irakasleagaz joango dira.

Eguna: 2011-03-17

Tokia: Etxebarriko Musika Eskola

Ordua: 18:00


AUTORIZACIÓN

Autorizo a mi hijo/a a acudir al ensayo para la grabación del disco de canciones populares de Galdakao y alrededores, promovido desde el departamento de Euskera del Ayuntamiento, estando el grupo acompañado por la profesora de canto Xxxx Xxxx:


Ikaslearen izen-abizenak • nombre y apellidos del alumno/a:	
---	--

Aita, ama edo tutorearen izenpea • firma de padre/madre o tutor/a:	
--	--


*Oharra • Nota: orria betetzea derrigorra da • es imprescindible rellenar esta hoja



Alkatea
Ugestiako Udala



Ugestiaga, 2011ko martiaren 2a

 Idazki laburrak (jarraian)

ONERETXIA • AUTORIZACIÓN

Galdakako Udaleko Hezkuntza eta Euskara arloak bultzatuta Nerbioi-Ibaizabal bailarako abesti herrikoiak diska baten grabauko dira. Abestiak ZUZTARRETATIK AHORA egitasmoan batutakoak izango dira. Entsegura Xxxxxx Xxxxx Xxxxx kantu irakasleagaz joango dira.

Autorizo a mi hijo/a a acudir al ensayo para la grabación del disco de canciones populares de Galdakao y alrededores, promovido desde el departamento de Euskera del Ayuntamiento, estando el grupo acompañado por la profesora de canto Xxxxx Xxxxx Xxxxx:

Eguna: 2011-03-17


Tokia: Etxebarriko musika eskola

Ordua: 18:00


Ikaslearen izen-abizenak • nombre y apellidos del alumno/a:	
---	--

Aita, ama edo tutorearen izenpea • firma de padre/madre o tutor/a:	
--	--

*Oharra • Nota: orria betetzea derrigorra da • es imprescindible rellenar esta hoja



Alkatea
Ugestiako Udala



Ugestiaga, 2011ko martiaren 2a

Batean nahiz bestean euskaraz idatzitako testua nabarmendu egingo da eta horrelakoetan, hizkuntza bat goratzeko, hiru bide nagusi daude:

3.1.1.- Kokapena

Udaleko idazkietan hiru egoera aurreikus daitezke: elkarren ondoan doazen berbak, zutabeak eta orrialdeak.

- **Elkarren ondoan doazen berbak.** Adb. Eskaera-orriak, inprimakiak... Hizkuntza bat nabarmentzeko aurrean edo gainean jarriko dugu beti.

Eskaera-orria

S-BE-5 jarduera-unitatean (Bengoetxe) babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko lehentasun eskubidea lortzeko eskabide-orria.

Solicitud de inscripción para participar en el sorteo por el que se obtiene la condición de socio/a cooperativista con derecho de adquisición preferente de vivienda de protección oficial en la S-BE-5 (Bengoetxe).

1.- Eskatzailearen datuak • Datos del solicitante			
Lehenengo deitura • Primer apellido		Bigarren Deitura • Segundo apellido	
Izena • nombre	Sexua • Sexo G • H <input type="checkbox"/> E • M <input type="checkbox"/>	Jaioteguna • fecha de nacimiento	
NAN • DNI <input type="checkbox"/>	Zenbakia • Número	1.Tel.	
Pasaportea <input type="checkbox"/>		2.Tel.	
Egoitza-txartela • tarjeta de residencia <input type="checkbox"/>			
Helbidea • Domicilio			
Udalerría • Municipio	Lurraldeá • Territorio	PK • C.P	
Egoera zibila • Estado civil			
Ezkongabea • Soltero/a <input type="checkbox"/>	Banandua • Separado/a <input type="checkbox"/>	Alarguna • Viudo/a <input type="checkbox"/>	
Ezkondua • Casado/a <input type="checkbox"/>	Dibortziatua • Divorciado/a <input type="checkbox"/>	Izatezko bikotea • Pareja de hecho <input type="checkbox"/>	
Desgaitasuna • Discapacidad			
Mugikortasun urriko desgaitasun fisikoa • con discapacidad física de movilidad reducida <input type="checkbox"/>			

- **Zutabeak.** Alor honetan egin diren ikerketen arabera, ezkerreko zutabea da nabarmentzen dena, begiek, berez, horretara jotzen dutelako zuzenean.

Zutabeen aukera aukeratzen badugu horrela egingo dugu:

Testuak bi hizkuntzetan idatzi behar direnean, 8,45 cm-ko bi gelaxkatan antolatuko dira. Bi gelaxketako testuak hurbilegi egon ez daitezten, erdian 0,4 cm-ko beste gelaxka jarriko da. Bi gelaxken antolaketa hau ia idazki guztietan aplikatu daiteke: inprimakiak, abisuak, gutunak, dekretuak, etab.

Idatzitako testuen zabalera 8 cm-koa izateko taulako zutabeetan antolatu behar da.

Horretarako hau da taula barruko testu zutabeak antolatzeko prozedura:

1. Orrialdearen marjinak zehaztuko dira: ezkerrean 2,1 eta eskuman 1,3.
2. Taulak tresnatik hiru zutabe txertatu.
3. Taulak tresnatik taula-propietateak erabiliz hiru zutabeei ondorengo neurriak eman: 8,35 cm – 0,4 cm – 8,35 cm.
4. Zehaztutako zutabe horien barruan idatziko dugun testuaren zabalera neurria 8 cm-koa izatea. Eta bi zutabe horien arteko tartea: 0,8cmkoa.

Hau da:

8,35 cm

0,4 cm

8,35 cm

EUSKARAZKO TESTUA	ESPAINIERAZKO TESTUA
-------------------	----------------------

Taula barruko testuaren zabaleta 8 cm	Anchura den texto 8 cm
←-----→	←-----→
Ikusi da komenigarria dela udalerriko gazteen artean euskararen prestigioa eta beronen erabilera sustatzea. Helburu horretarako, besteak beste, “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” eta “Motibazio saioak” izeneko tailerrak planteatu dira, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoetako ikasleei zuzenduta.	Visto que se estima conveniente fomentar el uso y el prestigio del euskera entre la población juvenil del municipio, para cuyo objetivo se han planteado, entre otras acciones unos talleres del habla coloquial juvenil “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” y unas sesiones de motivación para el alumnado de Secundaria y Bachilleratos.

- **Orrialdeak.** Bi orrialde baldin baditugu parean eskuinaldekoak dauka lehentasuna; horregatik, esaterako, izaten da garestiagoa iragarkiak-eta orrialde horretan jartzea. Horregatik honelako kasuetan espainierazko testua ezkerlaldeko orrialdean txertatuko da eta euskarazkoa eskuinaldekoan.

Espainiera espainiera <p style="text-align: center;">—10—</p>	Euskara euskara <p style="text-align: center;">—11—</p>
--	--

3.1.2.- Tipografia

Agiri idatzietan erabiltzen dugun tipografiak ere badauka zeresan handia, besteak beste, mezuaren azalean eragin zuzena daukalako.

Hala izanik batean bestean estrategia komunikatibo ezberdinak erabiltzen dira agiria ele bitan eman behar danean.

- **Letra neurria eta mota.** Euskarazko testuari espainierazkoari baino tamaina handiagoa eman:

ZIURTAGIRIA CERTIFICADO

Ikusi da komenigarria dela udalerriko gazteen artean euskararen prestigioa eta beronen erabilera sustatzea. Helburu horretarako, besteak beste, “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” eta “Motibazio saioak” izeneko tailerrak planteatu dira, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoetako ikasleei zuzenduta.	Visto que se estima conveniente fomentar el uso y el prestigio del euskera entre la población juvenil del municipio, para cuyo objetivo se han planteado, entre otras acciones unos talleres del habla coloquial juvenil “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” y unas sesiones de motivación para el alumnado de Secundaria y Bachilleratos.
---	--

Letra-motaren arabera bereizi testuak:

ZIURTAGIRIA (letra-mota lodia) CERTIFICADO (letra-mota zuzena)

Ikusi da komenigarria dela udalerriko gazteen artean euskararen prestigioa eta beronen erabilera sustatzea. Helburu horretarako, besteak beste, “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” eta “Motibazio saioak” izeneko tailerrak planteatu dira, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoetako ikasleei zuzenduta.	Visto que se estima conveniente fomentar el uso y el prestigio del euskera entre la población juvenil del municipio, para cuyo objetivo se han planteado, entre otras acciones unos talleres del habla coloquial juvenil “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” y unas sesiones de motivación para el alumnado de Secundaria y Bachilleratos.
--	--

ZIURTAGIRIA (letra-mota zuzena) CERTIFICADO (letra-mota etzana)

<p>Ikusi da komenigarria dela udalerriko gazteen artean euskararen prestigioa eta beronen erabilera sustatzea. Helburu horretarako, besteak beste, “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” eta “Motibazio saioak” izeneko tailerrak planteatu dira, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoetako ikasleei zuzenduta.</p>	<p><i>Visto que se estima conveniente fomentar el uso y el prestigio del euskera entre la población juvenil del municipio, para cuyo objetivo se han planteado, entre otras acciones unos talleres del habla coloquial juvenil “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” y unas sesiones de motivación para el alumnado de Secundaria y Bachilleratos.</i></p>
--	--

Aipatutako baliabideren bat erabiliz gero onartu behar da bi hizkuntzen arteko bereizketa grafikoan argia dela eta arin batean jakin dakigula zein hizkuntza den bakoitza. Are gehiago irakurtzerako orduan letra-moten hierarkia bat ezarri genezake:

Letra lodia. Nabarmenena. **ZIURTAGIRIA**

Letra zuzena. Neutroena. **ZIURTAGIRIA**

Letra etzana. Gaiztoena. **ZIURTAGIRIA**

Letra **lodia**, esaterako, neurrian oso aproposa da zer edo zer azpimarratzeko. Neurri barik erabiliz gero bere funtzioa galdu egiten du eta erabat nekagarria da testu luzeetarako.

Lodiaren antzean letra etzanak asko nekatzen ditu irakurlearen begiak. Gainera arazo gehiagoren iturri ere bada: zer egin behar dugu letra etzanez idatzitako testu batean etzana erabili behar badugu?

Noiz erabili behar ditugu letra-mota **lodi** eta *etzanak*?

Etzana, bestak beste:

- Liburu, film, elkarte eta horrelakoetan

Ikusi da *Tripontzi* Kultur Elkarteak (IFK zk. G-00000000) aurkeztutako proposamena.

- Atzerriko hizkuntzetako berbak edo esamoldeak, baita hizkuntza hiletakoak ere (latinezkoak...)

Antza, idazten hasi aurretik *brainstorming*-a egitea komeni zaigu.

- Izenak orokorrean, beti be animaliak, izengoitiak edo gailuak direnean

Ebaristo Bustinza *Kirikiño* Mañarian jaio zen 1866an.

KONTUZ!! Letra etzanaren ondoren doazen puntuazio-zeinuei dagokienez, esan behar da, zeinu horiek etzanez ematea onargarria bada ere, komenigarriagoa dala testuinguru osoa errespetatzea eta letra-mota zuzena erabiltzea puntuazio-zeinu guztientzat.

Lodia. Besteak beste:

- Izenburuetan eta azpi-izenburuetan

Ikusi da *Tripontzi* Kultur Elkarteak (IFK zk. G-00000000) aurkeztutako proposamena.

- Testuko zenbait berba azpimarratzeko, beti ere adierazgarria denean, ekintza edo erabakiak adierazteko

Eskuordeko zinegotzi honek, **erabaki du**:

LARRIA. Besteak beste:

- Sigletan

IVAP, HABE, HPS...

- Testuko zenbait berba azpimarratzeko, beti ere adierazgarria denean, ekintza edo erabakiak adierazteko.

Eskuordeko zinegotzi honek, **ERABAKI DU**:

- Letra kolorea

Horregatik guztiagatik tokian tokiko erakunde zenbaitetan letra-mota, estilo eta tamaina bera erabiltzen da testu bitzuetan eta bereizketa letraren kolorearen bitartez egiten da. Normalean euskarazko testurako beltza —inoiz urdina— erabiltzen da eta espainierazkorako grisa.

Grisa %40

<p>Ikusi da komenigarria dela udalerriko gazteen artean euskararen prestigioa eta beronen erabilera sustatzea. Helburu horretarako, besteak beste, “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” eta “Motibazio saioak” izeneko tailerrak planteatu dira, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoetako ikasleei zuzenduta.</p>	<p>Visto que se estima conveniente fomentar el uso y el prestigio del euskera entre la población juvenil del municipio, para cuyo objetivo se han planteado, entre otras acciones unos talleres del habla coloquial juvenil “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” y unas sesiones de motivación para el alumnado de Secundaria y Bachilleratos.</p>
--	---

Benetan ere uste dugu azken aukera hau dela egokiena eta berau jarraituko dugu bai idazki laburretan bai luzeetan. Baina kontu handiz erabili behar dugu toki erakundeek grisaren % ezberdina baitarabilte: %40, %50, %60, %70...

Guk gure idazkietan **%70 grisa edo goragokoa** erabiliko dugu:

%70eko grisa: color de fuente > mas colores > personalizado > rojo 95, verde 95, azul 95

%80ko grisa: color de fuente > %80

Grisa %70

<p>Ikusi da komenigarria dela udalerriko gazteen artean euskararen prestigioa eta beronen erabilera sustatzea. Helburu horretarako, besteak beste, “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” eta “Motibazio saioak” izeneko tailerrak planteatu dira, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoetako ikasleei zuzenduta.</p>	<p>Visto que se estima conveniente fomentar el uso y el prestigio del euskera entre la población juvenil del municipio, para cuyo objetivo se han planteado, entre otras acciones unos talleres del habla coloquial juvenil “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” y unas sesiones de motivación para el alumnado de Secundaria y Bachilleratos.</p>
--	---

Grisa %80

Ikusi da komenigarria dela udalerriko gazteen artean euskararen prestigioa eta beronen erabilera sustatzea. Helburu horretarako, besteak beste, “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” eta “Motibazio saioak” izeneko tailerrak planteatu dira, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoetako ikasleei zuzenduta.	Visto que se estima conveniente fomentar el uso y el prestigio del euskera entre la población juvenil del municipio, para cuyo objetivo se han planteado, entre otras acciones unos talleres del habla coloquial juvenil “Lagunarteko Hizkerarekin jolasean” y unas sesiones de motivación para el alumnado de Secundaria y Bachilleratos.
---	--

Oharra: idazki baten fotokopiak egingo badira komeni da %80ko grisa aukeratzea, fotokopiaren fotokopiaz kolorea galdu egiten da eta.

- **Justifikatuta.** Testuak justifikatzea eta lehenengo lerroan eta paragrafo hasieratan tabulaziorik ez ipintzea gomendatzen da.
- **Lerro kopurua.** Ahal den neurrian, antzekoa izan dadin, testua egokitu egingo da. Paragrafo desberdinak daudenean, euskarazko eta erdarazko paragrafoak lerro berean hasi daitezke.
- **Lerro artea.** Lerroen arteko espazioa beti izango da berbera eta bakuna erabiltzea gomendatzen da, nahiz eta testuaren arabera ere 1,5 ere izan ahal den.
- **Letra tamaina eta iturria.** Jarraian zehazten diren tamaina eta neurriak erabiliko dira eta bakoitzaren esku geratzen da neurri bat ala bestea aukeratzea. Edozelan ere:

Testu laburretarako (ofizioak, gutunak, ziurtagiriak, bandoak, dekretuak, jakinarazpenak...): TNR10
 Testu luzeetarako (txostenak, aktak...): TNR11

Izenburua: Times New Roman 15, lodia

Azpi-izenburua Times New Roman 13, lodia / zuzena

Testu arrunta Times New Roman 11


Oin-oharra Times New Roman 9

Izenburua Times New Roman 14, lodia

Azpi-izenburua Times New Roman 12, lodia / zuzena


Testu arrunta Times New Roman 10

Oin-oharra Times New Roman 8


 Bertaratze-ziurtagiria

BERTARATZE-ZIURTAGIRIA

Libe Bolunburu andrea, 00000000N nortasun-agiriduna, Ugestiagako Udaleko Hirigintza Sailean izan da 2011ko otsailaren 11n, goizeko 11:00etan, egon ere.



M^a Lourdes Atximieta
BOE teknikaria
Ugestiako Udala



Ugestiagan, 2011ko otsailaren 11

CERTIFICADO DE ASISTENCIA

Se hace constar que Doña Libe Bolunburu con DNI n° 00000000N se ha personado en el Departamento de Urbanismo del Ayuntamiento de Galdakao

3.2.- BIZKAIERAREN ERABILERA

Orain arte, administrazioko hizkeraren pean, eguneroko hizkeratik batere hur ez dagoen ereduak aukeratu izan da; dotoreagoa zelakoan, administrazioko hizkerak hala eskatzen zuelakoan edo, gehiagoko barik, horrela egin behar zelakoan.

Tamalez aukeraketa horrek ondorio benetan ere kaltegarriak eragin ditu eta testu elebidunetan, esaterako, jendeak gurago izan du espainierazko bertsioa irakurri, euskarazkoa baino argiagoa zelako.

Behin eta berriz ahoan darabilgun komunikazioa lortu gura badugu derrigorra da administrazioko hizkeran ere hartzaileak ulertzeko moduko lexikoa erabiltzea. Hau da derrigorrean hurbildu behar ditugu bizkaiera eta batua.

Bizkaieraren erabilera

ZUZENA	Heldu den ostiralean ez dira isunak izapidetuko, bulegoa itxita egongo baita.
ONDO	Datorren barikuan ez dira isunak tramitatuko, bulegoa itxita egongo delako.
HOBETO	Datorren barikuan ez dira multak tramitauko, bulegoa itxita egongo dalako.

Hau da, ahal dela administrazioko agiritan gure euskalkiko lexiko eta egiturak erabiliko ditugu, nahiz eta idazten dugun testua euskara batuaz idatzi. Baina administratuari eman beharreko informazioa zuzen-zuzeneko edo lehentasunezkoa denean eta informazio hori idazki laburra bada, bizkaiera jaso erabiliko dugu, beti ere komunikazio zuzenaren mesedetan eta, zelan ez, bizkaieraren transmisioaren lagungarri:

Oharrak

Bandoa

Udaleko informazio kanpainak (bilketa pneumatikoa, metroaren lanzadera...)

- **Euskaltzaindiaren adierazpena euskalkien erabileraz**

137. Adierazpena

(...)

Adierazpen honen xedea da euskara baturako eta euskalkietarako esparru eta jokoarau zehatzagoak ezartzea edo berrezartzea; horien bitartez euskaldun guztiok eroso eta eraz ari gaitezten egunero euskara erabiltzen dugunean. Horretarako, oinarritzko lau abiaburu hauek proposatzen dira:

1.1. Begirunea izatea. Euskaraz mintzo diren hiztunen egoera desberdinei begirunea zor zaie, hiztun horiek euskalkiak erabili nahiz euskara batua erabili. Hortaz, hiztunen artean ez da bereizkeriarik egin behar euren jatorritzko hizkuntzaren ondorioz, euskalkiaren ondorioz edota zuzenean euskara batua ikasi izanaren ondorioz.

1.2. Elkarren osagarri izatea. Euskara batuko eta euskalkietako adierazpideek, idatzizkoek nahiz hitzezkoek, elkarren aberasgarri izan behar dute: zehatzago esanda, euskalkietako formek berezko bide izan behar dute euskara batuko formetara heltzeko. Besteak beste, hiztegian, sintaxian eta esapideen arloan, euskara batua eta euskalkiak ukipenean daude, bi errealitate horiek bizi-biziak direla.

1.3. Forma egokiak erabiltzea. Euskalkia erabiltzean, egoera eta eremua kontuan hartuta aukeratu behar dira formarik egokiak: eremu zabalerako, euskara batutik hurbil dauden formak, eta eremu mugatuagoetan, bertakoak ere bai.

1.4. Arauak eta gomendioak betetzea. Euskalkien erabilerari buruzko Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak bete beharrekoak dira; eta bereziki, lehenago aipatutako 1979ko bi baldintzak eta 1994ko zazpi proposamenak.

2. Administrazioan

Hedaduraren arabera, hiru herri-administrazio mota daukagu Euskal Herrian: orokorra, lurraldekakoa eta tokian tokikoa; eta bakoitzaren jardun-esparruak bere hizkuntza-eremu bereziak ditu. Horiek horrela, eta Administrazioaren eginkizunik behinena herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea izanik:

2.1. Euskara idatziari dagokionez, administrazio orokorrean euskara batua erabiliko da.

2.2. Lurralde mailan diharduten administrazioek aintzat hartuko dituzte bertako euskalkiak; betiere administrazioiko lexikoaren eta terminologiaren batasuna begiratzuz, erabilera orokorreko hitzen ordeak asmatzen ibili gabe.

2.3. Bidezkoa da tokian tokiko administrazioek bertako euskalkia erabiltzea herritarrekiko harremanetan, batik bat ahozkoetan.

2.4. Herritarrekin ahozko harreman zuzena duten administrazioetako langileek tokian tokiko euskalkiaren oinarritzko ezagutza behar dute.

4.- IDAZKIAK

4.1.- OHARRAK

Udalaren bulego eta lokaletan edo kalean bertan, administratuari zerbaitez ohartarazteko eta informatzeko erabiltzen ditugun komunikazio laburra.

A4 tamaina erabiliko dugu bai era apaisatuan bai goitik beherakoan.

Lehenasuna euskarazko testuak edukiko du eta, horregatik, euskarazko testua ezkerreko aldean idatziko dugu. Sarritan oharrak mezu grafikoak izaten dira eta benetan ere zaila izaten da zutabe bi erabiltzea testuak ondo eta egoki txertatzeko. Horrelakoetan orriaren goiko alderdian euskarazko testua kokatuko dugu eta beherengoan espainierazkoa.

Aukera bitzuetan letra mota bera erabiliko da eta euskarazko testurako kolore beltza erabiliko da espainierazkoarentzat grisa (%70etik gorakoa)



GALDAKAOKO HIRI-UDALEKUAK 2011 COLONIAS URBANAS



IZENA-EMOTeko • INSCRIPCIÓN

Epea • plazo: 2011-05-02 / 2011-05-20

Non • lugar:

Euskara zerbitzua. 09:00 – 13:00

Indarra (Urreta). 17:00 – 20:00

Usansoloko ludoteka. 17:00 – 20:00

Aperribai H.I. 09:00 – 13:00 / 15:00 – 16:30

4.2.- INPRIMAKIAK eta ESKAERA-ORRIAK

Inprimakien ezaugarri nagusia da datuak batzea. Hau da, administratuak, herritarrak, edo dena delakoak datu batzuk eman beharko ditu.

Derrigorrezkoa da inprimaki-orria ulergarria izatea eta datuak bete behar dituenak argi ikustea non bete behar duen. Komunikazio zuzen eta ulergarria lortu gura badugu puntu batzuk eduki behar ditugu gogoan:

- **Hizkuntza biak orrialde berean.** Erakunde batzuetan orri ezberdinetan jasotzen da euskarazkoa eta espainierazkoa edo orriaren alde batean, normalean aurre aldean, jasotzen da euskarazkoa eta atze aldean espainierazkoa. Gauzak horrela langileak edo administratuak erabakitzen du zein alde erabili eta, hartara, bere erabakiz betetzen du euskarazkoa eta espainierazkoa.

Diseinu hori ez da komenigarria. Batetik, bilketa nahasgarriagoa delako eta orri bakarrean beharrezko diren datuak eduki ordez, pare bat orri behar dira eta, hartara, paper asko pilatu egiten da. Bestetik, normalean espainierazko aldea bete ohi da; eta, azkenean espainiera hutsezko komunikazioa bihurtzen da erakunde eta administratuaren artekoa, nahiz eta sarritan administratua euskalduna izan.

Hau guztiau jazo ez dadin hizkuntza biak orrialde berean ipiniko dira

- **Edukiaren egitura.** Inprimaki askotan testua erabiltzen da eta betegarri modura, baina testuan bertan txertatuta, jasotzen dira datuak. Egitura hori ez da egokia, besteak beste, datuak galtzeko aukera behiago dagoelako. Gainera, orri berean hizkuntza bietarako aukera eman gura badugu testuak bikoiztu egin behar ditugu eta atzera ere aurreko puntuan azaldu ditugun arazo berak izango ditugu.

Horregatik, inprimaki elebidunetan datuak taula moduan jasoko ditugu.

Inprimaki ezegokia


.....	D./Dña.....
.....jaunak/andreakcon
NAN a duenak eta ,	D.N.I.....,
IFZ	en calidad de
duen.....	(cargo)..... la
.....de
.....erakunde/elkartearen	entidad/asociación.....
.....,
.....kargua duenak.	CIF.....
.....,

Inprimaki egokia


Eskatzailearen datuak • Datos de la persona solicitante	
1go abizena • Primer apellido	
2.abizena • Segundo apellido	
Izena • Nombre	
NAN • DNI	
Erakunde barruko kargua • En calidad de (cargo)	
Erakunde edo elkartearen izena • Nombre de la entidad / asociación	

Erakundearen/elkartearen IFZ • CIF de la entidad / asociación	
---	--

- Gelaxkak edo marrak. Batean bestean biak erabiltzen dira, bai gelaxkaka bai marrak. Egia da erakunde gehienetan gelaxkaren Aldecoa ahutua egin dutela, batez ere, datuak argiago ikusten direlako.

 **Inprimaki desegokia. Datuak marretan ez.**

ESKATZAILEAREN GURASO EDO TUTOREAREN DATUAK DATOS DE LOS/AS PADRES/MADRES O TUTOR DE LA PERSONA SOLICITANTE	
IZEN-DEITURAK • NOMBRE Y APELLIDOS _____	
HELBIDEA • DIRECCIÓN _____	
NAN • DNI _____	Tel.: _____
E- MAIL _____	
GIZARTE EKINTZAKO DIRULAGUNTZEN ONURADUNA? • ¿PERCEPTOR DE AYUDAS SOCIALES?	
BAI • SI <input type="checkbox"/>	EZ • NO <input type="checkbox"/>

 **Inprimaki egokia. Datuak gelaxkatan.**

ESKATZAILEAREN GURASO EDO TUTOREAREN DATUAK DATOS DE LOS/AS PADRES/MADRES O TUTOR DE LA PERSONA SOLICITANTE	
IZEN-DEITURAK • NOMBRE Y APELLIDOS _____	
HELBIDEA • DIRECCIÓN _____	
NAN • DNI _____	Tel.: _____
E- MAIL _____	
GIZARTE EKINTZAKO DIRULAGUNTZEN ONURADUNA? • ¿PERCEPTOR DE AYUDAS SOCIALES?	
BAI • SI <input type="checkbox"/>	EZ • NO <input type="checkbox"/>

 **Inprimaki egokia (hobeto I). Datuak gelaxkatan.**

ESKATZAILEAREN GURASO EDO TUTOREAREN DATUAK DATOS DE LOS/AS PADRES/MADRES O TUTOR DE LA PERSONA SOLICITANTE	
Izen-deiturak • Nombre y Apellidos	
Helbidea • Dirección	
Telefonoa	
NAN • DNI	
e- mail	
Gizarte ekintzako dirulaguntzen onuraduna? ¿perceptor de ayudas sociales?	Bai • Si <input type="checkbox"/> Ez • No <input type="checkbox"/>

 **Inprimaki egokia (hobeto II). Datuak gelaxkatan. BFAkoeredua**

Eskatzailearen guraso edo tutorearen datuak • Datos de los/as padres/madres o tutor de la persona solicitante			
Lehenengo deitura • Primer Apellido (*)	Bigarren deitura • Segundo apellido (*)	Izena • Nombre (*)	N.A.N • D.N.I.
Ohiko bizilekua • Dirección habitual (*) (kalea edo plaza, solairua eta atea) • (calle o plaza, piso y puerta)		Herria eta P.K. • Localidad y C.P.(*)	Telefonoa
e- mail			
Gizarte ekintzako dirulaguntzen onuraduna? • ¿perceptor de ayudas sociales?		Bai • Si <input type="checkbox"/> Ez • No <input type="checkbox"/>	

(*) Ezinbestekoa da atal hauek betetzea • Es necesario rellenar estos apartados

- Datuen antolaketa. Datu asko jartzen ditugunean komeni da datu horiek multzo ulergarrietan banatzea:
 - Eskatzailearen datuak (izen-deiturak, helbidea, telefonoa...)
 - Eskaeraren datuak (zer, zertarako...)
 - Bestelako datuak (dokumentazio erantsia, oharrak...)

 **Izena emateko orria**
UGESTIAGAKO UDALEKUAK 2011
IZENA EMATEKO ORRIA • HOJA DE INSCRIPCIÓN
GURASO EDO TUTOREAREN DATUAK • DATOS DE LOS/AS PADRES/MADRES O TUTORES

Izen-deiturak • Nombre y Apellidos	
Helbidea • Dirección	
Telefonoa	
NAN • DNI	
e-mail	
Gizarte ekintzako dirulaguntzen onuraduna? ¿Perceptor de ayudas sociales?	Bai • Si <input type="checkbox"/> Ez • No <input type="checkbox"/>

UMEARI BURUZKO DATUAK • DATOS DEL NIÑO/A

Izen-deiturak • Nombre y Apellidos		
Jaiotze data • Fecha de nacimiento		
Ikastetxea • Centro educativo		
Ume ezindua? • ¿Persona discapacitada?	Bai • Si <input type="checkbox"/> Ez • No <input type="checkbox"/>	Zehaztu • Concretar

3.- AUKERATU NAHI DUZUN ATALA (bat bakarrik) • MARCAR LA OPCIÓN CORRESPONDIENTE (única)

a) Hiri udalekuak • Colonias urbanas (2011-07-05/22, 9:30 – 13:30)

x	Lekua • Sitio	Umearen adina • Edad del niño/a ⁽²⁾
	Unkina HI	3 – 12
	Plazakoetxeko txaletak	3 – 4 ⁽³⁾
	Aperribai HI	3 – 12
	Urreta HI	5 – 12

b) Udaleku artistikoak • Colonias artísticas (2011-07-05/22, 9:30 – 13:30)

x	Lekua • Sitio	Umearen Adina • Edad del niño/a
	musika eskola	5 – 12

Hau sinatzen duenak, inskripzio honen eskatzaileak, bere gain hartzen du adierazitakoaren erantzukizuna. Gainera, datuak fitxategi batean sartzeari ONARTU, eta Galdakako udalari egoki iruditzen zaizkion egiaztapenak egiteko BAIMENA EMATEN DIO. Datuak hiri udalekuak kudeatzeko baino ez dira erabiliko. Fitxategiaren arduraduna Galdakako Udala da, eta interesatuak sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango ditu (abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa).

